

Euskal Herriko konfederaziorantz

“Today, of course, nationalism is about the only way to protect populations from globalism”

Michael Hudson

1. Hitz egin dezagun independentzia birtualaz

Hasteko, eta gauzak argiro esatearren, esan dezadan independentista hutsa naizela, separatista alegia. Frantziar eta espainiar estatuetatik at, erabat kanpo, egon liteke euskal estatu errepublikar baten aldekoa. Gutxienez, Europar Batasunean (EB) oinarriak diren gaurko estatuek iraungo duten bitartean. Bihar etzi beste eraketa bat egonen dela European? Ongi, baldintza horietan ikusiko dugu zer-nolakoa antolaketa emango diogun geure herri osoari. Baina gaurkoz, separatismo hutsa.

Montreal-en, Québec-en hasi nintzen, beste behin eta era sakonago batez, ekonomia ikertzen. Eta Québec-en egoera (Kanadatik kanpo ala Kanada barruan?), analizatzeari ekin nion, orain dela 20 urte. Quebec-en gauza interesgarri bat ikasi nuen, alegia, hango sindikatuek subiranotasunaren inguruan, mugimendu zibilen arloan, errebindikazio sozialen aurrean jorratutakoa txalogarria zela benetan. Are txalogarriagoa, pentsatzen baldin badugu aberastasun guztia lan-indarrak sortzen duela, lan-indarra zentzu zabalean noski (Adam Smith, Karl Marx edo eta John Maynard Keynes, lekuko).

Subiranotasuna, autodeterminazioa, independentzia, ... , horrelako kontzeptuak argitu behar dira. Ados. Mundu mailako ekonomia eta europar ekonomia ikertu beharra dago. Argi. Dauden arazoak eta baldintza kontuan eduki behar dira. Noski. Historizismoak (XII. mendeko nafar estatua eta abar) ez digu ezertarako balio. Argiago ezin. Historia irekita dago, Deleuze-k dixit. Euskal Herria oso eskasa da baliabide naturaletan. Badakigu. (Japoniak ere ez; eta ez dut Japoniako eredu ekonomiko eta soziala inportatu nahi. Ezta pentsatu ere ez!) Baina Euskal Herriak, bere osotasunean, giza kapital ikaragarri on, landu eta aberatsa dauka. Ezin ukatu. Ahalmen hori frogatu izan da hala frankismo nola neofrankismo edo eta sasi-demokrazia honetan, eta hori guztia inongo subiranotasun politikorik eduki gabe. Nola egon gintezke subiranotasun politikoarekin, geure erabakiak hartzeko ahalmenarekin? Dudatan ote zaudete?

Dena den, eta haxe egia da, epe luzera, zenbait erabaki ekonomiko hartu beharko genuke industrian, inbertsioetan eta geure azpiegitura ekonomikoan: arlo produktibo berrietan inbertituz, sektore estrategiko berriei buruz arduratuz (eta zaharkituak baztertuz), alegia, hezkuntza, irakaskuntza eta ikerketan inbertituz, ...

Gaur egunean bi estatuk erabakitzen dute guri, ekonomia mailan, dagokiguna: ontziola dela, arrantza dela, nekazaritza dela, irakaskuntza dela, edo eta nazioarteko foroetan parte hartzeko eta erabakitzeko arlo desberdinei dagozkien jardueretan.

Egun inolako kompetentziarik gabe, Euskal Herria, bere osotasunean, ez dago hain gaizki: espainiar zein frantziar estatuetako zenbait erregio baino hobe. Are gehiago, portuges estatua baino hobe. (Baten bati otuko litzaioke portuges estatua espainiar estatuan “integratzea” portugesak hobe egotearren? Badakizue portuges esaera hura: “*Espainia eta ozeano atlantikoaren artean? Ozeanoa!*”) Nola egongo litzateke European euskal errepublika independente bat? Gaur baino hobe, inongo dudarik gabe.

Are gehiago, hego Euskal Herria, oro har, espainiar estatu baino hobeki dago arlo ekonomikoan. Esan diezagula espainoltxo batek ez duela bere estatua behar, eta, kasu, frantses estatuan "integratuko" dela. Zer dela eta, hortaz, gure ekonomia ez aritzea errepublikar estatu propio batean, Europar Batasuna, eta erabakiak hartzeko subiranotasun izanik, Europako beste estatu guztiek daukaten subiranotasun-maila berberarekin? Zeren beldur gara? Zer dela eta Espainiaren (eta Frantziaren) gutxienezko konplexu hori?

Gure ekonomia enpresa ertain eta txikien inguruan murgiltzen da. Hori da gure altxor produktiboa, hala gestioz nola produktioan, bere lan-indar oso produktibo eta lehiakorarekin. Horixe da gure faktore estrategikoa, zaindu, hobetu, gaurkotu eta mimatu behar dena.

Madrirek egindako ahalegin guztien gainera, hego Euskal Herria aurrera doa. Nola joango litzateke oztopo guzti horiek izan barik? Zuek erantzun, ez konplexuz beteriko politikero horiek!

Agian, inbertsioak egiteko uneetan, ikuspegi orokor bat, ikuspegi *nazional* bat falta zaigu, herri osoa kontuan edukiko duena; epe laburretik izan ezik epe ertain eta luzeko inbertsioak kontuan izango dituen; herrialde guztietan (Lapurdi, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Nafarroa Garaian edo eta Baskongadetan) inbertituko duten enpresariak, kooperatibak, inbertsiogileak, ... bultzatuko dituen.

Quebec independentearen inguruan, Montreal-en orain dela 20 urte, entzundako ekonomiar buruzko txorakeria berberak hasi gara hemen entzuten espainiar sasi-ekonomialarien ahotik. Ez dut uste gehiegi merezi duenik horiei kasu egiteak. Baina mingarria da abertzalea omen den hemengo jendea txorakeria beretan murgiltzen hasten denean. Ulertezina niretzat. Edo agian ulergarria, zeren abertzale etiketaren azpian edozein gauza ezkuta daitezke. (Horrexegatik gu bezalakook separatistak gara!)

Argudio nagusia hauze litzateke: euskal independentzia berdin deskapitalizazioa. Euskal Herria irla bilakatuko litzateke, azak jango genituzke, kapitalek ihes egingen ligukete, pobrezia hedatuko litzateke, langabezia areagotuko, ... Baina katastrofe guzti horiek gurera etorriko balira, orduan, zer dela eta onartezina da autodeterminazio eskubidea Euskal Herrian aplikatzea? Zeren beldur dira espainolak (eta frantsesak)? Okerrago oraindik, independentea al da espainiar estatua, frantses estatua, Europar Batasuna bera? Ba ote dago gure inguruan era autarkiko batez iraun dezakeen estatu bat? Nork bultzatzen du Euskal Herrian aukera ez historiko hori?

Gaur egungo baldintza kaxkar hauetan, espainiar estatua baino hobe funtzionatzen dute hainbat euskal erakunde irakaskuntzan, osasungintzan, eta hainbat zerbitzu sozialetan. Nola funtzionatuko lukete beren ahots propioa edukiko balute? Hamaika bider hobe. Segur egon. Dudatan egotekotan, egin dezagun froga datozen hamarkadetan zehar, eta gero, berriz, nahi izanez gero, dena berrikertu. Gaur egungo Europar Batasuna (EB) estatu desberdinen eraketa da, baita kapital handiaren eraketa ere: enpresa handiek eta banku erraldoiek beren nahitarako sortu eta antolatu dute EB¹.

EB horretan euskal errepublika independentea eratzeko daukagun oztopo bakarra, apartekoa noski, bi estaturi dagokiona da: espainiar eta frantses estaturak. Ez dago beste oztoporik, ez ekonomikorik, ez sozialik, ez kulturalik edo linguistikorik. Arazoa erabat politikoa da. Kontua subiranotasunari dagokio, autodeterminazioari, erabakitzeko subjektuari. Horretaz ez dut uste abertzalea denak dudarik izango duenik. Hortaz, ados bagaude horretan, ahalegin gaitzen puntu horren inguruan batzen, bateratzen.

¹ Badago oso liburu on bat, orain dela 25 urte plazaratua: Stuart Holland (1980) *Uncommon Market*. Oraindik ere irakurtzeko merezi du. EBko merkatua ez da komuna, erabat desorekatua baizik.

Egia da EB hori martxan jartzerakoan, soilik kapitalari begiratu diotenez, europar banku zentralak izan duen politika monetario ia bakarria inflazioari aurre egitekoa izan dela. Ondorioa ezagutzen dugu: langabezia nonahi eta gastu sozialen murriztea.

Beste aldetik, badakigu hitzen zorabioarekin ez goazela inora. Subiranotasun ekonomikoa aipatzen denean, zehaztu behar da, jakin behar dugu zertan ari garen. Argi dago gaur egungo EBko estatuek daukaten subiranotasun politikoak (nolanahi ere den!) ez duela suposatzen, ezta pentsatu ere, subiranotasun ekonomikorik daukatetik. Beraz, separatistok, erabat independentzia zaleok, hor daukagu desafio teoriko bat, argitu beharrekoa, geroko gero baterako ezin dena luzatu.

Abertzaleak bai baina independentistak ez zaretenok independentzia birtualaz hitz egin gabe, borroka ezazue eskubide demokratikoa den autodeterminazioak Euskal Herrian gauza dezan. Gutxienez bat egin dezagun horren inguruan, independentzian sinesten ez duzelako. Nire aldetik *ad nauseam* idatzi dut 1985tik gaur arte, azken hogei eta piko urte hauetan Euskal Herriaren independentziaz, itxi zizkiguten *Eginen* eta gero *Egunkarian*, *Berrian*, *Uztaron*, *Herria 2000 Elizakoek* daukaten aldizkarian eta antolatu dituzten kongresu berezietan, baita liburu batzuetan ere. Badakit, hala ere, ez dela nahikoa. Arazo horretaz ikertzen eta idazten jarraitu behar dugu. Zin dagit neure ahalegintxoak hortxe emango ditudala.

2. Euskal Herriko Konfederaziorantz

XXI. mendean sartu gara eta hemengo ezker ofizialeko asko oraindik lotuta daude XIX. mendeko eskemei -Lenin, Mao eta arras gairadituriko parafernalia intelektual kaxkarra, zaborra alegia-, informatika-iraultzarekin batera bizi ditugun aldaketa sakon eta berriak kontuan eduki gabe. Teoria zaharkituak eta kapitalismo oso atzeratuak diren erregimen zapaltzaileak -deitutako sistema sozialistak- oraingoz dira goraiatuak zenbait bazterretan, eta izen ponposoen aitzakiaz -maiuskulaz, beti maiuskulaz, idatzitako Iraultza, Justizia, Bakea, eta abar-, batzuek oraindik sistema zaharkitu horiekin amesten dute. Gure aurrean gertatu diren sakoneko aldaketak analizatu eta ikertu barik, guretariko askotxok ez dugu ezer ikasi eta antzinako bulgatak errepikatzen ditugu exegesi berri gisa. Alta, desobedientzia zibileko aroan bizi gara. Gizarte mugimenduen aro berri honetan lehengo eskemak erabat atzeratuak geratu dira.

Aro berri honetan independentzia da helburu, ez inolako autonomismoa². Hori gero eta garbiago azaldu behar da. Beraz, epe laburreko eta epe ertaineko proposamenak loturik egon beharko lirarteke independentziaren aldeko estrategia baten barruan.

Zehaztu gabeko independentziaren eta erabat definiturik gabeko sozialismo baten izenean jende askotxo aritzen da gure txoko honetan. Independentzia hori interdependentzia baten barruan kokatu behar denik ez dut uste inork ukatuko lukeenik. Independentzia autodeterminazioaren bidez lortu behar da. Hortaz, autodeterminazioa da *hic et nunc* etengabe aldarrikatu behar dena. *Kanporako* autodeterminazioa Euskal Herri osorako, nahiz eta *barnerako*, taktika mailan eta epe ertainean, Baskongadetarako, Nafarroa garairako eta Iparralderako, *konfederazio* moduko antolaketa bat edo antzekoren bat proposatzea.

Baina lehendabizi, Lizarra-Garazi itunean egon ziren indar guztien artean eginahal berezi batzuk gauzatu behar dira, behin eta berriz, gauden putzu eta *impasse* honetatik irteteko.

Presoak hurbiltzea, edo eta haien aldeko hainbat eskakizun oso garrantzitsu (gaixo daudenena, kondenaren $\frac{3}{4}$ -ak bete dituztenena,...) aldarrikatzea ez dut uste arazo sakonik denik akordioa

² XXI. mendeari aurre egiteko, Euskal Herriaren independentzia politikoa ezinbestekoa, beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Beste ekonomia mota bat behar da dauzkagun arazoak konpontzearen.

lortzearren, daukaten inportantziarik kendu gabe. Beste aldetik, Iparraldean, Nafarroa garaian, eta Baskongadetan gauden egoera desberdinetatik abiatzea eta Udalbiltza bezalako gain-erakunde operatibo bat prestatzea eta antolatzea ez litzateke zaila izanen.

Ekonomian subiranotasun monetarioa eta ekonomikoa da aztertu eta analizatu behar dena. Nahiko hedatua den sozialdemokrazia (baita ezker abertzale ortodoxoen artean ere!), onenean ere, neoliberalismo gordin honen kontra, nolabaiteko hesia bada ere, kapitalismo hutsa besterik ez da. Eskematxoetatik irteteko eta ekonomia beste modu batez antolatzeko, badaude autore batzuk, batez ere monetak edo diruak daukan eragina kontuan edukitzen duten autoreak.

2. 1. Ohiko politikaz haratago

Gatazka politiko eta sozial berriek ohiko ezkerren eskematxoekin bukatu dute. Ohiko alderdi politikoak paranoiko bihurtu dira, gorporatibismoari atxikita, borroka berriak oraindik bideratu nahiz, kudeatze hori gatazkan bertan dauden mugimenduen barneko arazoa dela konturatu gabe.

Spinoza zaharrarekin batera esan beharra dago ezen desio berrien gauzatzea amaigabeko berregituratzea dela, hots, espazio-denbora berriak sorraraztea, etengabeko gatazka. Autobalorapenen bidez, elkartasun berrien bitartez, politika berria agertu da, erabateko parte-hartzea bultzatzen duena, zentraldurik barik erabat deserdiraturik dagoena, lurraldetasun berrian demokrazia berria sortuz. Azken bi hamarkadetan erresistentzia-espazio gisa singularitasun kolektiboak agertu dira, kolektibo bakoitzak bere etika motari atxikiz.

Eraikitze prozesu horiek zientzia daukate askatasun-ekintzen metapen gisa, zeren ez baitago inongo eraikitze ontologikorik modu inmanentean elementu materialen -batera fisiko eta sozialak- metapenik eta eskuratzetik gabe. Botere konstituziogile, eraikitzaile baten aurrean gaude: hierarkia eta zentralismo mota guztien kontra, horizontaltasuna eta deserdirapena bultzatu dira. Subjektu berriak beren burua autoezagutuz eta autoantolatuz agertu dira, eta zentro gabeko sistematan, sare hedatuetan antolatu dira. Horrela, askatasunezko espazio berriak, *lurraldetasun* berriak nonahi azaldu dira.

Lehenengo paradigma politikoak -abangoardia baten inguruan gauzatzen zirenak- erabat hilik daude. Desio eta nahi berrien gauzatzeak -sareetan eraturiko botere konstituziogile berriek-, alegia, politika berriak lekuz kanpo utzi ditu lehenengo kontzeptu eta eskema guztiak. Autobalorapen material eta kulturalen modu desberdinen bidez azaltzen den antolakuntza berria da egungo ezaugarriarik nabarmenena. Antolatzeko modu berri hori da, hain zuzen ere, politika berria: askatasunezko, demokrazia parte-hartzailezko eta sormenezko espazioen etengabeko bereganatzea eta konkistatzea. Espazio-denbora berri horiek anizkuntasun gisa, pluraltasun moduan eratzen dira, zeren singularitasun kolektiboen nahiak, desioak eta beharrak erabat ezberdinak baitira.

Lurraldetasun berri horrelako batek izan beharko du Euskal Herri berriak, zeina *konfederazioaren* bidez eraiki daitekeen. Gure egunotan, arlo politikoan herriak, kontzientziaduna den aldetik, ontologiaren eta historiaren arteko bitartekaritza demokraziaren inguruan gauza dezake. Baina ez, orain arte ezagutu den moduan 'borondate orokorrean' oinarritutako demokrazia formal gisa, baizik eta etengabeko, bukatugabeko konstituzio edo eraikitze materialean finka daitekeen demokrazia berri moduan.

Zentzu honetan, eta Euskal Herriari dagokionez, litekeena da benetako gizarte mugimendu independentista bultzatzea, alderdikrazian mugituko ez dena, alderdi eta kontrol-aparatu guztietatik kanpo, autonomia, bere buruaz kudeatzeko gai izanen dena, eta euskara hutsean arituko dena.

Gizarte mugimendu berri horrek, maila eta arlo askotako askapen mugimendu berriak, zentro gabekoa izan beharko du, edo eta beste era batera esanda, zentro askotakoa, zentralkeria guztien aurkakoa, ezelako transzendentziarik gabe, inolako besterenganako bestelakatzerik gabe, inongo sasi-abangoardiaren menpe. Mugimendu independentista hori Euskal Herria eraikitzen laguntzeko tresna aproposa izan daiteke.

Giltza zerean datza, alegia, *multizentralismo funtzional* edo holako zerbait eraikitzean. Tokian tokiko eta lekuan lekuko beharrizan eta premiei autonomoki, era independente batez, erantzun aproposak eman beharko lizkieke mugimenduak. Gazte, emakume, intsumitu, eta beste hainbeste gizarte mugimenduren garaia dela agerrarazi beharra dago nonahi. Honela, Euskal Herria sormen berriztat ager daiteke, lurraldetasun berri modura.

Eraikitzean dagoen eta leninismo mota guztietatik askea, kontrol mota guztietatik librea den gizarte mugimendu independentista indartsua euskaldunon esku dago, ez beste inon.

2. 2. Autodeterminazio (AD) eskubideaz hitz bi

Gros Espiell-ek ongi zehaztu du herriaren definizioa eta berari dagokion autodeterminazio eskubidea. Estatuaren aldetik agertzen den kontzeptuaren nahasketa interesatua argitu nahirik, hona hemen Gros Espiell-ek emandako zenbait definizio eta ohar egungo nazioarteko zuzenbideari jarraituz.

Herria gizatalde bat da ohiturek, ideiek, erabilerekin, nahiek eta helburu komunek bateratzen dutena. Kultura, hizkuntza eta zenbaitetan erlijioeko lotura historikoei betetzen duten gizatalde kontzientziaduna da herria. Etorkizun komunerako kontzientziak eta borondateak batzen duten giza kolektibitatea da herria. Egun ezin da egon inolako internazionalismorik herrien borondateetan, hots, jendearen desioetan oinarritzen ez denik.

Nazioa gizataldea ere da, baina nazio bat herri batzuek osa dezakete. Herriak dira, ez nazioak, nazioarteko zuzenbideko subjektuak.

Estatua ez dator bat, nahitaez, herriaren edo nazioaren kontzeptuekin. Estatu batean herri batzuk eta nazio batzuk ere egon daitezke.

Herria eta nazioa errealitate historikoak, soziologikoak dira. Estatuak egitura eta eraketa juridikoa inplikatzeko du, hots, sistema juridiko konkretu bat.

AD eskubidearen tituludunak herriak dira, edozein herri. Lehen esan bezala, edozein herri dauka nazioarteko zuzenbide garaikidean onartutako autodeterminazio eskubidea. Eskubide hori ez da ahitzen³. Beti bizirik egoten baita. Beste aldetik, herriaren erabaki askea suposatzen du AD eskubidearen praktikak⁴.

Estatuaren lurraldetasunaren osotasunak (*'integritad'* delakoak) ADren praktikarekin talka egiten du, baina ADren eskubidea da oroz gain babestu behar dena⁵.

³ "El derecho a la libre determinación tiene una virtualidad permanente. No se agota o se extingue en el ejercicio inicial del derecho. Subsiste siempre vivo."

⁴ "El ejercicio del derecho a la libre determinación, impone necesariamente el libre pronunciamiento del pueblo."

⁵ "El difícil e inestable equilibrio entre el derecho a la libre determinación de todo pueblo y la integridad territorial de los estados ha sido encarado en múltiples instrumentos emanados de las Naciones Unidas. (...) para que la integridad territorial de los estados prevalezca (...) debe tratarse de un estado que garantice el

2. 3. Abiapuntuak

Aipa ditzagun egun Euskal Herrian dauden abiapuntuak eta ikus dezagun ea zer-nolako prozesua hobets daitekeen independentzia politiko eta ekonomikoa lortzeko, subiranotasun ekonomikoa, politikoa eta monetarioa burutzearen.

Argi dagoenez, beste arlo batzuk ere -arlo linguistikoa, kulturala, sindikala, ekologikoa, irakaskuntza- eta hezkuntza-arloa, eta abar- ukitu beharko lirarteke prozesu horretan. Guri dagokigunez, eta arlo horiek guztiek daukaten garrantzia ukatu gabe, politikari eta ekonomiari lotuko gaitzaizkie lan txiki honetan.

Abiapuntua aipatzerakoan, batzuek Estatutua aipatzen dute. Oso gardena da estatutuak, pluralean, aipatu beharko direla. Baita Ipar Euskal Herriko egoera berezia ere.

(Badakigu, ongi jakin, nominalismo hutsean mugitzen dela hainbat jende gure herrian. Gure herriaren izena bera ere manipula daiteke, eta manipulatu da, ez dakigu zer-nolako egoera iluntzeko. Lehengo 'Euskadi' hura ere hiru probintzietara mugatu nahi du zenbaitek. Horregatik, Euskal Herria hobesten dugu, hau da, zazpi probintzietakoa den herriaren izena.)

Egungo abiapuntuaz hitz egiterakoan, hiru abiapuntu desberdin kontuan hartu behar dira: Euskal Autonomi Erkidegoa, non bete gabeko Gernikako Estatutua martxan dagoen; Nafarroa garaia, bete gabeko Foru Hobekuntzarekin; eta Iparraldea, oraingoz eratu gabeko Departamentuarekin. Beraz, abiapuntua bera nahiko zehatz gabekoa da. Gure herriko hiru gunek desberdin horietan, politika eta ekonomia mailan, martxan dauden prozesuak ez dira erabat zehazturiko legediak eta ongi araututako marko politikoak, azken hogeitaz urte hauetan eztabaidan eta tira biran egon diren prozesuak baizik. Prozesu horietan, harrigarria bada ere, Madrilek hainbat eskuduntza luzatu dio Nafarroa garaia Baskongadetatik aldentzeko asmoz. Gainera, egia da, estatutu desberdinen bidez lorturiko eskuduntzak nolabaiteko 'babesleku' modura har daitezkeela. Izan ere, bi estatu zentralisten arriskua beti dago gure gainean, Demoklesen ezpata balitz bezala. Horrek ez gaitu izutu behar. Alderantziz, lorturikoa kontuan edukiz, independentzia lortzeko zenbat falta denaz hausnartu behar da behin eta berriz, eta horren alde *demokratikoki* borrokatu, borroka gozagarrien eta antimilitaristen bidez.

2. 4. Euskal Konfederazio berrirantz

Politika mailan autodeterminazio-eskubidea izan behar dugu helburu hurbila, eskubide hori martxan jartzeko noski. Argi dagoenez, *kanpo*-autodeterminaziorako, Euskal Herria, bere zazpi probintziekin, herri soil eta bakarra da eta soilik berari, ez beraren edozein zatiri, dagokio nazioarteko mailan onarturik dagoen autodeterminazio-eskubidea. Hortaz, inoiz gure herria nazioarte mailan herri eta nazio gisa agertuko bada, hiritar guztien desioen, nahien edo gurarien bidez azalduko da. *Barne*-determinazioa beste kontu bat da. Barnerako, gure herriak dauzkan berezitasun guztiak kontuan eduki behar dira. Haien artean eta lurraldetasunari dagokionez, egungo egoeran hiru gunek oso berezietan azaltzen gara; guri gustatu ala ez, gauzak horrelakoxeak dira. Horregatik edo Euskal

derecho de libre determinación de los pueblos en su territorio, que han de poder expresar su voluntad con total libertad. Así el principio de integralidad territorial del estado deja de ser un criterio absoluto y pasa a ser un principio, importante y significativo, pero limitado y relativo, que existe si el estado respeta el derecho de la libre determinación de los pueblos que viven en su interior y que, en el ejercicio de este derecho, puedan elegir su "status" jurídico.

He sostenido, y sigo afirmando, que el derecho a la libre determinación es hoy un caso de "jus cogens", es decir de norma imperativa de Derecho Internacional."

Herriko bateratasun bat lortzearren, *barne-konfederazioa* proposatu dugu hainbat artikulua eta lekutan.

Barne-konfederazioaren ikuspuntutik, egungo abiapuntu desberdinetatik hamaika proposamen egin daitezke hiru guneetan eta arlo ezberdinetan: kulturean, ekologian, sindikalgintzan, hizkuntzan eta irakaskuntzan, ekonomian,... Ekonomiaren ikuspuntutik, kasu, euro-gunearen barruan mugitzen gara. Egoera ekonomiko latzean gaude.

Beraz, Euskal Herriaren barnerako, konfederazioa onartzen bada, hamaika eginkizunen aurrean gaude, gaurko egoera desberdinetatik abiatuz. Horretarako martxan dauden bi estatutu desberdin horiek 'betetzea' derrigorrezkoa bada ere -eta hementxe badago zer egin!-, kontua da betetze horretan ez geratzea, aurrerantz joatea, inolako beldurrik gabe gero eta subiranotasun politiko eta ekonomiko handiagoa eskatzea, harik eta kanpo-autodeterminazioa indarrean jarri arte.

Arazo bakarra, eta ez makala, nolabaiteko taktika mailan datza. Zer egin? Printzipio mailan aritzea? Independentzia bihar goizetako eskatzea? Ala, gauden egoera desberdinetatik independentziarantz joan daitezkeen zenbait ildo politiko eta ekonomiko asmatzea? Hortxe dago, gure ustez egungo kezka nagusia. Eta arazo honetaz behin eta berriz eztabaidatu beharrean gaude guztiok.

Maila estrategikoan nahikoa argi daude zenbait puntu. Kasurako, politika mailan Europan egun edozein estatuk daukan maila politiko berbera (askoz hobea, noski) lortzea. Zer dela eta, bestela, espainiarrak edo frantsesak gu baino europarragoak izatea? Guk baino eskubide gehiago edukitzea? Bigarren mailako herritarrak izanen ote gara euskaldunak Europa berrian?

Beste gauza batzuk ez dira hain garbi. Zerbait aipatzearren, batzuek 'sozialismoa' aipatzen dute, baina inolako zehaztasunik gabe. Okerrago, 1980ko hamarkadaren bukaeran oraindik hemengo batzuek *Comecon*-en integrazioa proposatzen zuten, eta orain ere, gure egunetan, hainbat 'iraultzaile' testu ortodoxoetara itzuli dira fedearen bila.

Eta horrela doa gure historia. Euskaldun fededun herri honetan kristautasuna alboratu bide da eta marxismoan, *sorry* stalinismoan!, egon diren joerarik atzerakoienak, zapaltzaileenak, totalitarioenak aukeratu, onartu eta bultzatu dira. Ez dugu ezer ikasi. Ezkerrak porrot egin duela onartzen ez dueino, jai du. Kontua ez da atzoko 'sozialismo' terminoari adjektibo ederrak atxikitzea -'identitarioa', 'partehartzailea', 'berria', eta ez dakit zer gehiagorik-. Kontua da ea nola lor daitezkeen hori guztia hala ekonomian (batez ere) nola politikan edo kulturean zein irakaskuntzan.

Batzuk ez dakit zer-nolako gizaki 'berriaren' zain dauden, komunismo 'berria' lortzearren. Izan ere, gure herrian stalintxoak eta maozale porrokatuak perretxiko gisa nonahi agertu ziren bitartean (eta oraindik hementxe gaude, erdi ezkutaturik edo) Debord-ek 1967an bere *Ikuskizunaren Gizartea* delako liburuan 'erabilera-balioaren joerazko jaitzieraz' idatzi zuen garbiri, hots, edozein erabilera ekonomiaren menpetasunean egoteaz. Hortaz, kanbio-balioaren bidez, zehazki diruaren bitartez, iristen da erabilera-baliora. Dirua da nagusia, bera da agintzen duena eta estatuen gainetik, inolako kontrolrik gabe mugitzen dena. Arlo horretan dagoen (daukagun!) gabezia eta zulo teorikoa izugarria da, apartekoa.

Bien bitartean, bizi dugun kapitalismoan hamaika desoreka gaude ekonomian, eta horretaz ez da eztabaidatzen. Horretaz ez da ezer esaten, ez bada halako edo bestelako diskurtso moralista astun eta gogaikarriak. Hortxe bukatzen da dena.

Errealitatean dagoen pluraltasuna homogeneokeriara murriztu nahi du kapitalak. Horri aitzitik, bizitzaren aldeko apustua egin behar dela erakutsi digute pentsalari zenbaitzuek, bizitzaren adierazpen konkretu guztietan: hala maila linguistikoan nola kulturean zein sozialean edo

politikoan nahiz ekonomikoan. Apustu hori dela eta, egun, intsumisioa arlo zibilean hedatu da, desobedientzia zibila aldarrikatuz eta martxan jarriz hainbat arlotan. Izan ere, militantismo masokista mota guztietatik at, jendeak bere desioak eta nahiak bete nahi ditu, betetze horretan parte hartuz. Erremedio moralista aspergarriak proposatzen dituztenak hilik daude politikoki, aspalditik gainera. Beste aldetik, sufrikarioaren logika masokismo hutsa besterik ez da. Spinoza-ri jarraituz, borroka demokratikoan gozatu egin behar da.

Esan bezala, eragile sozial berriek bizitza bera errebindikatzen dute, bizitzaren kalitatea da goraiatzeko dena, edozein ekintzatan parte hartuz eta aparatu kontrolatzaile eta stalinista, maoista edo eta leninista guztien, hots, zapaltzaile guztien gainetik.

Ekonomia mailan, eurotan aritzen gara. Zer suposatzen du Euskal Herrirako eurogunean mugitzeak? Zeintzuk dira Euskal Herriak eurogunean dituen arazo ekonomikoak? Nola uztar daitezke independentzia politikoa eta subiranotasun ekonomikoa? Nazioarteko Moneta-Fondoaz eta Mundu-Bankuaz ba ote daukagu ezer esatekorik, diskurtso aspergarrietatik kanpo? Kanpo-zorrak arduratzen gaitu? Barkamenaren bidez, hots, karitatearen bitartez konponduko ote da kanpo-zorren arazoa? Ba ote daukagu neurriren bat kapital espekulatzailerako erraldoiaren kontra? Zer ote da Finantza Kapitalismoa? Lehengo kapitalismoa industrialak bera ote?

Galdera asko eta erantzun gutxi. Ekonomi arloan estatistika batzuk agertuko zaizkigu, besterik ez. Baina Euskal Herriaren fotografia ekonomiko hutsak diren estatistikek ez dute deus balio geure etorkizun ekonomikoaz definitzeko, onenean soilik abiapuntua bera nolakoa den argitzen baitute. Neurri makroekonomikoak behar dira makroekonomia kudeatzeko.

Konfederazioaren kontzeptua argi edukiz, hots, estrategia garbi egonez, politika mailan taktika bereziak erabil daitezke Euskal Herriaren 'bateratasuna' lortzeko. Izan ere, ezin batasunek ezin suntsi ditzake tokian tokiko berezitasunak: Arabarrak zein Enkarterrikoak eroso, eta pozik, egon beharko ginateke geure nazioa eraikitzeko proiektuan, zuberotarrak edo Erriberakoak egon daitezken modura.

Mota guztietako zentralkeriak parte-hartzearen hiltzera darama, eta parte-hartzea da gaur egun nonahi eskatzen dena. Kontrola nahi dutenei, aparateroei zein stalintxoei ulertezina bazaie ere, *parte-hartzea konfederazioaren bidez gauza daiteke*. Izan ere, zenbat eta deserdirapen handiagoa eta zabalagoa izan, orduan eta indartsuagoa eta sendoagoa izan daiteke gure nazioaren eraikitzea barnerako, kanporako herri soil eta bakartzat agertuko garen bitartean. Ezar dezagun, beraz, konfederazioa praktikan maila eta arlo guztietan, norberaren izaera -gizabanakoarena zein taldearena nahiz eskualdearena edo herrialdearena- arriskutan jarri gabe.

3. Informazio-gizartean bizi gara

Lehengo eskema zaharrak errepikatzeak hondamendira besterik ez gaitu eramaten. Beste diskurtso berri bat asmatu beharra dago. Alta, diskurtso berria ez da aski. Berarekin batera praktika politikoa berri bat beharrezkoa da. Horretarako, aspaldiko ohiturak eta praktika zaharrak alboratu behar dira. *Homo sapiens* delakoa *homo digitalis* bihurtuz doan aro berri honetan, malenkonía politikoa mota guztiak soberan daude. XXI. mendean informatika, diseinugintza, iragarkigintza, telematika, inteligentzia artifiziala eta beste zenbait 'komunikazio diziplina' direla medio, hitzak eta komunikazioak berak aspaldian zeukaten zentzua galdu dute. Hitza eta komunikazioa, gure kontrol-gizarte honetan, usteldurik daude, zeren beroriek diruak erabat zeharkatu baititu. Gainera, estatuez baino haratago dirua da nagusi, bera da 'komunikatzen' duena, eta bera da kontrol mota guztietatik askea dena.

Zer-nolako eraginak dauzka informatika-iraultzak gure herrian, ziberespazioa etengabe handituz doalarik? *Homo sapiens* delakoaren ezaugarri nagusia lurrarekiko haren lotura izan zen. *Homo digitalis* delakoak ziberespazioan dauden hamaika telepolis berrieekin dauzkan erlazioetan neurtzen du bere eginkizuna eta telepolis horiekin batera bere etorkizuna gauzatuz doa. Telepolisa deslurraldetutako hiria da, muga geografikoan eta politikoen gainera eratzeko dena. Lehengo giza harremanak (familiakoak, auzokoak, herrikoak, ...) auzotasunean eta gizakien hurbiltasunean oinarritzen zirenak aldatuz doan heinean, giza harreman berri batzuk sortu dira, urrunetik gauzatzen direnak. Egun Euskal Herriko edozein txokotatik munduko edozein lekutako jendearekin konekta daiteke. Munduan zehar gaur 360 milioi pertsonak erabiltzen dugu interneta, ingelesez %51,3an. (Euskara etxerako, ingelesa *-lingua franka* gisa- kanporako. Hona hemen biharko Euskal Herriak eskatzen diguna.)

Euskal Herriak dauzkan potentzialtasun mota guztiak arlo desberdinetan (politikan, ekonomian, kulturean eta hainbat maila sozialetan) gauzatuz joan beharko du, inolako kanpo-eskusartzerik gabe. Hauxe da, hain zuzen ere, egungo 'bakearen prezioa': inor ez dadila sar, inoren izenean, Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzean. Abangoardismoaren erabateko porrota inoiz baino argiago deneko egoera honetan, gure artean egon litekeen elkartasunari zenbait metodo zaharkituta aparteko kaltea egiten diote. Horiek soberan daude. Beste bide berriak asmatu behar dira. Horretarako, hortxe daude solidarioek, intsumituek, eta desobedientzia zibilekoek burutzen dituzten ekintza ederrak. Ikasiko ahal dugu!

4. Interneteko espioitza

Ba ote daukazu bizitza pribaturik? Horrela uste baduzu, berriz ere pentsatu behar duzu gai horretaz. Honela hasten da Andrew Gauntlett-en liburuxka interesgarria bezain liluragarria⁶.

Interneteko sareak *World Wide Web* (www) delakoa jadanik komunikazio globala aldatu du erabat, eta dudarik gabe gehiago aldatuko du. Baldin eta kreditu txartela edo telefono mugikorra baduzu, faxa erabiltzen baduzu nahiz Interneten sartzen bazara edo e-mail-ak bidali, jakin behar duzu begiratuta zaudela, alegia, etengabeko kontrolpean zaudela. Hauxe da informatizazio-aro honetan zuk jakin ez dezazun haiek nahi dutena. Haiek informazio mota horiek guztiak kontrolatzen dituztenak dira.

Baina, horrekin batera beste teknologia mota bat garatu da pribatutasuna gordetzearren, kode-teknologia, kriptografiaz aritzen dena. Kasu, *Electronic Frontier Foundation* (EFF) izeneko elkarte ikus www.eff.org askatasun zibilen aldekoa da eta web erabiltzaileen eskubideak bermatzen ahalegintzen da. (Web gune hori sarean dagoen mozkinik gabeko elkarte batena da, pribatutasuna eta askatasuna bermatu nahi dituen. Argi dagoenez gobernuak ez zaie batere gustatzen elkarte berri hori.)

Britainia Handiko Channel 4 telebistaren arabera, europar eta amerikar hiritarrak berrehun konputagailu baino gehiagotan daude fitxaturik eta, urtearen edozein egunetan beraien izenak zazpi eta hogeiren arteko konputagailu-sistematik igarotzen dira.

Menwith Hill tokiak, Ipar Ingalaterran dagoenak, agian ez dio deus esaten irakurleari. Alta, leku horretatik telefono-dei, e-mail eta fax guztiak daude fitxaturik. Munduan zehar bost posta-entzule daude, hauetariko bat Menwith Hill-ekoa da. Menwith Hill-eko entzulea eta bera bezalako besteak ere Echelon izeneko sare bereziari dagokio. Mezu bakoitza hiztegi-konputagailu berezi batek iragazten eta analizatzen du, eta susmagarria den guztia kontuan hartzen da. (Kontuan hartzen dute haiek, alegia US National Security Agency-koek.)

⁶ Ikus *Net Spies. Who's watching you on the Web?*

Hala ere, Menwith Hill-eko bezalako kontrol-posta kriptografian aritzen diren teknologia berriek gaindi dezakete. Izan ere, sarean bertan badaude nahiko baliabideak norberaren ekitaldian maila pribatuan gordeta eta babestuta egoten jarraitzeko. Gauntlett-en liburua honetaz ere ari da. Kriptografia-teknologiak pribatutasuna bermatzen du eta horrelako teknologia mota batzuk dohainik daude sarean. Isilpeko kode berezien bidez, informazioa, komunikazioa eta, hortaz, pribatutasuna babesten dira. Kriptografiak, hortaz, mezua, edozein modutan bidalia delarik, kodifikatzen du; hortaz, kode berezi batzuk behar dira jatorrizko mezua, behin hartu eta gero ulertzeko.

Gaur egun kriptografia erabat sofistikatu da. Kasu, kodifikatzaile asimetrikoek bi giltza erabiltzen dituzte, bata kodifikatzeko eta bestea deskodifikatzeko. Kodifikatzaile asimetrikoen artean ezagunena eta agian praktikan garrantzitsuena RSA algoritmoa da.

RSA Rivest, Shamir eta Adleman-en akronimoa algoritmoa zenbaki bakoiti handien berezitasunetan oinarritzen da mezuak kodifikatzeko. RSA delakoa apurtzea, irekitzea zenbaki bat bakoitia den ala ez jakitea da. Arazo hori analisi matematikoari dagokio. Zenbaki bakoiti handiekin (RSA-k erabiltzen dituenekin) arazoari irtenbidea ematea ez da batere praktikoa, zeren denbora oso luzea behar baita ebazpena lortzeko. Izan ere, RSA algoritmoari dagokion giltza tipiko bat deskodifikatzeak ehunka milioi urte hartuko bailituzke⁷.

Beste aldetik, iparamerikarra den Phil Zimmerman-ek, RSA delakoan oinarrituta, kriptografia programa berri bat asmatu du, PGP delakoa *Pretty Good Privacy*. Programa hori saretik jaits daiteke⁸.

PGP delakoak ez du soilik RSA erabiltzen modu horretan oso astiro ibiliko bailitzateke; beste kriptografia sistema bat ere bai, IDEA izenekoa *International Data Encryption Algorithm* erabiltzen du. IDEA horrek erabiltzen duen giltzak bere gain eta bere aurka etor daitezkeen edozein eraso jaso dezake. PGP delakoa erabiltzen den bakoitzean IDEA-giltza soil eta bakar bat sortzen da. Giltza hori gero RSA-ren bidez kodifikatzen da, Mezua kodifikatuta dago IDEA-rekin, eta RSA-ren bitartez trukutzen, bidaltzen da segurtasunez.

Aipaturiko liburuan beste gauza interesgarria batzuk ikus daitezke. Hala nola, isilpeko datuei dagozkien gomendioak. Izan ere, konputagailu-segurtasun adituek argi diotenez, datu horiek ez dira inoiz konputagailuan sartu behar. Are gehiago, konputagailuko datuak ezabatu nahi direnean, ez dira erabat desagertzen, beti geratzen baitira barruan. Aditu berezi batzuk daude arlo horretan, eta ia ezabaturiko edozein datu berreskuratzeko gai dira, prozesu garesti samar baten barruan. Hortaz, konputagailu batetik sarturiko datuak ezabatzea ez da batere erraza, oso zaila baizik. (Jakina datekeenez, goi isilpeko aginduak ahoz aho eman behar dira.)

Sarea gero eta gehiago hedatuko da mende honetan, berori jendeari begiratzeko aparteko bitartekari eta erreminta bihurtuz. Horrela estatuek izugarrizko boterea izanen dute populazioa miazteko, kontrolatzeko. Sarea etengabeko behatzailea izanen da, isilpean, jendea analizatzeko eta fitxatzeko.

Zorionez, EFF bezalako elkarteak sortuz eta hedatuz doaz munduan zehar. Kriptografia ez da soilik indar militarrei hasieran izan zen moduan dagokien teknologia. Aitzitik, badaude egon gure

⁷ Ikus www.rsa.com delakoa produktu eta zerbitzuetarako; web gune horretan kriptografian aritzen diren teknologiak eta arazoak agertzen dira.

⁸ Ikus www.pgp.com.

pribatutasuna eta askatasuna bermatzen ahalegintzen direnak ere. Gauntlett-en liburua arazo horietaz informazioa jasotzeko erreferentzia interesgarria izan daiteke. Emaiozue begirada bat liburuxkari uda honetan.

5. Nafar estatuantz? Berreskuratu ala eraiki? Estatu berria eraiki!

Iruñetik datorkigun mezuaren arabera, badirudi nafar estatua berreskuratu beharko dugula. Zenbait nafar ikerlarik lan erraldoia eta ederra egin dute, dudarik gabe. Gainera, nahiz eta aurrekoek, Kanpionek eta, aspaldian ildo bera jorratu, inoiz baino argiago geratu da euskaldunok geure historian estatu bat izan dugula. Hortaz, nolabaiteko pedigri historikoa badaukagu.

Egia da azken ehun urteko abertzaletasuna Aranaren aldarrikapenetatik etorri dela hein handi batez. Aranismoak ez zuen aintzat hartu euskaldunok nafar estatua izan dugula mendeetan zehar. Erreferentzia juridiko-politiko-historiko horrek ez du ukan behar zuen lekuan gure politikagintzan. Alta, zenbait historialari nafarrek erakutsi digutena oso garrantzitsua izanda ere, ez da nahikoa. Argi daukagu historiografia hori beharrezkoa dela, erabat. Baina nahikoa izateko, egungo egoerari begiratu behar zaio, erabat aldatuta dagoen informatika-gizarteari, oso bestelako baldintza ekonomikoei eta sozialei egin behar diegu so. Mundu berri honi erantzunak asmatzen saiatu behar gara.

Historiografia desberdinek gure historia ezagutzen lagundu gaituzte. Baina historiak ez gaitu askatuko. Historiak itsutu egin gaitzake: historiak, gorabehera askorekin, gauden egoera larrira ekarri gaitu. Historian zehar ezaguturiko baldintza ezberdinek ez dute deus balio geure orainaldiaz eta etorkizunaz jabe izateko. Jendearengandik at ez dago ezer. Euskaldunok, Euskal Herriko hiritarrok dauzkagu hitza eta erabakia, ez beste inork.

Nafarroa garaian egungo esparru politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala irabazi behar ditugu abertzaleok, Iparraldean edo eta Baskongadetan egin behar dugun moduan. Hori da, hain zuzen ere, jende askori maiz ahazten bide zaion kontua. Baskondaketako kontuei gehiegi begiratu gabe, jende askotxok hobe luke Nafarroa garaiko oraingo kontuei ere begiratzea, Euskal Herriaren osotasunaren perspektiba, noski, galdu barik.

Ez da kontua esatea Euskal Herria eta Nafarroa txanpon beraren bi aldeak direla, Euskal Herria kontzeptu kulturala eta Nafarroa adierazpen politikoa. Hori, onenean ere, nominalismo hutsa izan daiteke. Izen baten azpian ez dago ezer. Egun berdin dio proiektu politikoari nafar estatua, euskal estatua edo Euskal Herriaren estatua deitzeak. Kontua da ea nola iristen den euskal estatu horretara gaurko baldintzetatik. Horixe da apustua eta horixe da erabaki behar duguna.

Egun inoiz baino gardenago daukaguna autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapena da. Errepikakorra izan gintezke, baino behin eta berriz esan behar da ezen eskubide hori edozein herriri, herri osoari dagokion eskubidea dela. Hortaz, Euskal Herri osoa da autodeterminazio-eskubidedun bakarra. Ez Araba, ez Zuberoa, ez dira autodeterminatzeko subjektuak.

Aipatu bezala, Nafarroatik datorkiguna historiografia berria Kanpionen ildotik abiatu da. Kanpionek ere, Euskal Herriaren egituraketari buruz, Nafarroaren inguruan, Baskoniako *Konfederazioa* aipatu zuen. Baskoniako lurraldeen konfederazioan Euskal Herriaren etorkizuna koka daiteke; lurralde desberdinen konfederazio hori lortzeko, egungo baldintza konkretuetatik hasi behar dugu, ez orain dela mila edo bost ehun urtekoetatik. Egia da Nafarroa izan zela euskaldunen erresuma historikoa. Baina Euskal Herriak aro historiko anitz bizi izan ditu historian zehar. Egungo gizartea da erabakitzailea, ez orain dela mila urtekoa. Euskal Herriko gaurko indar politikoei, sindikalei, agente sozialei eta gizarte mugimenduei dute hitza. Egungo nafar erkidegoa, Baskongadak eta Iparraldea

bateratu behar dira, hiru esparru ezberdin horiek eraman ditzaketen erritmo desberdinez kontuan edukiz.

Euskal Herriak ez du ukan inongo iraganaldi paradisiakorik. Eta etorkizun paradisiakorik ere ez du ukanen. Aroan aroko eta aldian aldiko jendeak erabakiko du zer nahi duen eta nola lortu nahi duen, desioen, nahien, beharrianen eta baldintzen bidez. Horixe da, eta ez besterik, AD gauzatzea. AD ez da behin betiko erabiltzen, beti bizirik eta irekita den eskubidea baizik (Gros Espiell).

Prozesuan gaude, interdependentzia batean Euskal Herri independente bat martxan eta indarrean jartzeko etengabeko prozesuan. Berreskuratze historiko eta, era berean, gizarte informatiko berri honetan, eraikitze berri honetan hamaika zeregin dago eta, zoritxarrez, horretarako eztabaida eta proposamen gutxi. Proposamenak, edozein eskutatik datozela, eztabaidatzekoak dira.

Euskal Herriaren etorkizuna Suitza txiki baten antzerakoa izan zitekeela idatzi zuen orain dela zenbait urte Manex Goyhenetche historialariak. Berak zioenez, Europako nazioen mapatik kendu zuten nazio bat. Konkistapen horren ondoren, herri hori zapalduta egon da eta oraindik horrela, hots, menperatuta segitzen du. Hortaz, Nafarroak badu legitimitate historikoa eta hori ezin zaio kendu. Baina maila praktikoan Baskoniako lurraldeen konfederazioa ikusten du Manexek Euskal Herriaren etorkizuna. Puntu honetan, ados gaude historialari baxenafarrarekin.

6. Gora Euzkadi azkatuta!

Honela zen. Horrela oihukatzen genuen Euzkadi hitza bera eta ikurriña debekatuta zeudenean. Geroxeago zertxobait ikasi genuen eta *Gora Euzkadi askatua!* bilakatu zen gure ohiko oihu hura.

Gu baino lehenago beste batzuek gogor borrokatu zuten Euzkadi horren askatasunaren alde. Haien artean Gordexolako batailoiko Garaizabal konpainiako Felix Arbulu Bilbao, gure osaba (beragandik jaso nuen izena: haren gorpua oraindik dago Elgoibarko San Migel mendian Ziardamendi inguruan, Arantzadi Zientzia Elkartekoek noiz aterako duten zain). Edo eta Ibaizabal batailoiko teniente zen gure aita, Santoñako presondegian heriotza-zigorrarekin egon zena, eta gero 1943 arte Espainian zehar 'lanean' langile-batailoietan. Eta haiek bezalaxe, hamaika gazte Euzkadiren alde, ahal zuten guztia emanez.

Gero gu etorri ginen, enbor beretik, beste maila batean, beste zereginetan, baina Euzkadiren alde ere. Hots, zazpi probintzien alde. Ahal genuen heinean.

Hori dela-eta, nahiz eta Euskal Herria izan gure nazio, egungo gure herriaren eta biharko gure estatuaren izena, eta izen hori guztiz maitatu dugun arren, ez dugu inoiz ahaztuko, are gutxiago baztertuko Euzkadi izenaren atzean zegoena eta dagoena. Badakigu batzuek izen eder hori Baskongadetara murriztu nahi dutela, beren lotsarako. Baskongaden izen 'ofiziala' omen da, hola bihurtu dute, inolako lotsarik gabe.

Baina Euzkadi ezaguna zen Iparraldean ere. Lapurdikoa zen Mixel Labegerieren kantu famatu hura (*'Gu gara Euzkadiko, gazteri berria/Euzkadi bakarra da, gure aberria'*) Iparralde osoan ez ezik, Hegoaldean ere oso ezagun bilakatu zen gure gaztaroan.

Eta Euzkadi arras ezagun bilakatu da Zuberoan ere, Pierre Bordazarre-ren pastorgile eta koblakari ospetsuaren laguntzaz. Hona *Ama* izeneko kantuan dioena: *"Hanitxen gisa baditit / Bi Ama amiragarri / Enia eta Euzkadi."* Edo *Libro etxean* delakoan: *"Maite beitzüntudan, Ama Euzkadi, ororen gainetik"*. Baita *Jeik hadi Euzkadi* delakoan ere: *"Jeik hadi Euzkadi eta mintza hadi ozenki gure gazteriar"*.

Ez soilik Eüskadi, ikurrina ere bereganatzen zuen Etxahun Irurik. Gogora dezagun *Agur Xiberoa kanta*: “*Oi xiberotarrak, aitzinean gora (E)üskaldün bandera!*”

Baina badakigu nominalismo dela nagusi gure herri zafratu honetan, eta izen baten azpian ez dagoela ezer, edo nahi bada, hamaika gauza daudela, hitzak polisemikoak direlako.

Badakigu, halaber, bizitzak ezer erakutsi badigu, hauxe litzatekeela ondoriorik garbiena: ‘abertzale’ berri, erreformista, pragmatista, aprobeztegi eta goranahi guztien gainetik, Euskadi, ikurriña eta euskara gureak direla, geure erroetaraino sartuta daudelako. Beste istorioak istorio besterik ez dira.

Eta gure Euskadi honetan (edo Euskal Herri honetan) Konfederazioa da martxan jarri behar duguna, egungo egoera konkretu desberdinetatik bihar-etziko Euskal Herri bateratu baterantz. Euskadi bateratu horri, eta soilik horri dagokio autodeterminazio eskubidea. Ez haren eskualde bati edo besteri. Izan ere, hiru esparru ezberdinen Konfederazio berrian gauzatuko baita Herri honen eraikuntza nazional bateratu berria. Eta soilik Herri horri dagokio autodeterminazio eskubidea, Gross Espiell-ek behin eta berriz maisuki erakutsi digunez.

Euskal Herria eraiki behar da, gaude egoera desberdinetatik abiatuz. Horixe ere zen lagun geneukan Manex Goyhenetxek, beste askorekin batera noski, erakutsi ziguna. Gure iragana ez dugu errepikatu behar, iraganetik ez dugu ezer berreskuratu behar. Etorrizuna da gure kezkarik nagusia, ez iragana.

Hortaz, gure herria eraikitzerakoan, bateratze berrian XXI. mendeko baldintza berriak kontuan eduki behar dira. Baldintza berri horietan Euskadi edo/eta Euskal Herria da, eta izango da, gure nazio bakarra, gure aberri bakarra, Labegerie gogoratuz. Herria askatu behar da. Ez inongo estatu zaharkiturik. *Euskal Herria, askatu!* aspaldiko leloa dugu, lelo ederra beste aldetik.

Berriz, eta argi gera bedi, Euskal Herri berriak ez du behar inolako estatu zaharkiturik, estatu berri bat baizik, gure historian lehen aldiz zazpi probintzia edo, nahi bada, hiru esparru berezi (Iparraldea, Nafarroa garaia, eta Baskongadak) bateratuko dituen estatu erabat berria. Hori lortzeko bidea autodeterminazioa da giltza, ez dago besterik. (Euskadi hori estatu independente gisa eratuko da, horrela erabakitzen badute euskal hiritar guztiek.)

Batzuek diotenez, Euskal Herria ez dela nahikoa, estatu dela funtsa. Baina gaurko estatuak, eratuta dauden moduan, ez dira gai langabeziari, inflazioari, moneten espekulazioei, kanpo-zorrari, eta oro har, nazioarteko kapital finantzarioari aurre egiteko. Atzoko estatuak are gutxiago: XI. edo XII. mendeetatik orain arte ezagutu ditugun estatuak. Gainera, estatu gehienak, guztiak ez esatearren, erabat zapaltzaileak izan dira, beren hiritarrekiko. Leviathan bilakatu dira, hots, munstro itzelak.

Euskal Herria nahiko eta sobera dugu, arlo ‘kulturalaz’ haratago, arlo guztiak bereganatuko dituen (linguistikoa, soziala, ekonomikoa, ekologikoa, juridikoa, politikoa, eta nahi dena).

Euskara eta ikurriña izanen dira Euskadi berriaren ikurrak lehengo gudariak amestu zuten bezala. Euskadi da, eta izango da, gure herri bakarra, gure nazioa bakarra, gure estatu berri bakarra. Nominalistak ez garenok, gure aurrekoen omenez eta ondokoei bidea erakutsiz, segi dezagun oihukatzen: *Gora Euskadi askatua!, Gora Euskal Herri librea!*

7. Separatista? Bai, noski!

Oso liburu interesgarria plazaratu zuen Ulises Moulines-ek orain dela zenbait denbora (2002, *Manifest nacionalista*). Gaia nazionalismoa da, baita separatismoa ere. Separatistontzat liburu ederra benetan.

Beste aldetik, Hudson ekonomialariak dioenez, “*Today, of course, nationalism is about the only way to protect populations from globalism*” (e-postetan).

Aspalditik izan dugu kezka hau. Alegia, subiranotasun politikoak behar ote duen moneta propioa. Idatzi ere, hainbat artikulutan eta liburu oso batean gaia ukitu dugu. Baina Euskal Herriak, (oro har eta monetarioki) bitan bananduta egon denez, (hegoaldean pezeta eta Iparraldean libera), ez politikoki ez monetarioki ez du izan aukera historikoa bere moneta propioa (edozein zelarik bere izena, *ogerlekoa, euskoa* edo dena delakoa) jaulkitzeko. Are gehiago, ekonomialari gehienek utopiatzat hartu dute egon zitekeen aukera hori. Bakan batzuek, aldiz, oso argi izan dugu ekonomia ongi kudeatzeko, norberaren monetan edukitzea (Banku Zentral baten bidez jaulkia) beharrezko baldintza dela; ez nahikoa noski. Euskaldunok Europar Batasunean sartu gintuzten, batzuei, hegoaldekoei, inolako kontsultarik egin gabe. (Iparraldekoak EBn egon dira hasiera-hasieratik).

Zaila izango litzakete, *hic et nunc*, moneta *propioa* jaulkitzea. Jendeak ez luke onartuko, nahiz eta teorikoki litekeena izan. Orain euroa da *gure* moneta, eta euroak Europar Banku Zentralak (EBZ) jaulkitzen ditu eta EBZk EB osoaren moneten kopurua kontrolatzen du. Baina euroak Espainiako zein Frantziako banku zentralak ere erabiltzen dituzte. Euskal Herrian ez dugu inongo banku zentralik. (Puntu hau jadanik ukitua dut⁹ aspaldian.)

Beste aldetik, independentzia politikoa daukan Letonian gertatzen ari dena ere ikusi dugu. Itsukeriak (EBrekiko eta euroarekiko itsukeria) Letoniako ekonomia zulo batean sartuko du neoliberalismoaren bidetik. Badakigu zein den EBren politika: batez ere defizit publikoa murriztea inflazioa kontrolatzeko, langabeziari aurre egin gabe.

Hala eta guztiz ere, nazionalismoaren manifestua gomendatzen digu Ulises Moulines-ek, separatismoaren manifestua egokiagoa izan daitekeenean. Eta Hudson-ek, hainbat neurriren artean, norberaren defizit publikoa kontrolatzearren, maileguak luzatzeko, moneta propioa eta kreditu-ekonomia proposatzen dizkigu. Hortaz, gauden egoeran gaudela, euroak jaulkitzen dituzten erakunde guztiei neurri batzuk proposatzen dizkie ekonomialari amerikarrak: defizit publikoak beste era batera erabiltzea, EB hori ongi antolatzea, eta europar gunean industriarako eta zerbitzu publikoetarako (ez espekulaziorako) inbertsioak gauzatzea, horretarako behar diren kredituak luzatuz. Horretan datza, hemen eta orain, subiranotasunaren muin eta beharizan ekonomikoa eta monetarioa.

Ez hori bakarrik. Jakina datekeenez, politika fiskala subiranotasunaren beste ezaugarri garrantzitsua da. Esan bezala, EBk aurrekontu defizita murrizten du erabat (AEBek egiten ez dutena, beste aldetik). Eta EBn sarturik egonda, aurrekontu publikoak neurri oso zehatz batean egon behar du. Hori aldatuko ez den bitartean, jai dugu, jai dugu europar guztiok, euskal hiritarrok barne.

Zerga kontuan antzekoa esan daiteke. EB osoan oso zergapetze atzerakoia dago martxan. Hor daukagu borroka teorikorako eta praktikorako beste arlo garrantzitsu bat. Oro har, lan askotxo dugu benetako euskal separatistok EB barruan burutzeko.

Aipatu moduan, konkretuki, eta guri dagokigunez, kanpo determinazioa dela-eta, Euskal Herria bere zazpi probintziekin herri soil eta bakarra da eta soilik berari, ez beraren edozein zatiri, dagokio nazioarteko mailan onarturik dagoen autodeterminazio-eskubidea. Barne determinazioan, aldiz, gure herriak daukan berezitasun guztiak kontuan hartu behar dira. Aspalditik barnerako **konfederazio**aren antzeko bat proposatu dugu, hiru gune berezietatik abiatuz. Izan ere, atzo honela ikasi bagenuen: “ $3 + 4 = 1$ ”; gaur horrela da kontua: “ $1 + 1 + 1 = 1$ ”. (Atzoko egia eta gaurko egia,

⁹ Ikus http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2005-09-06&orria=006&kont=016.

biak, biharko egiak bilakatuko dira Euskal Konfederazio berrian. Izan ere, horrela izan behar baitu gure herriaren eraikuntza bateratu berriak).

Errepika dezagun: konfederazioaren kontzeptua argi edukiz, hots, estrategia garbi egonez, politika mailan taktika bereziak erabil daitezke Euskal Herriaren *bateratasuna* lortzearren. Euskadi bateratu horri, eta soilik horri dagokio autodeterminazio-eskubidea. Ez haren eskualde bati edo besteri.

Independentistok, separatistok, badakigu biharko Euskal Herri subiranoa gaurko baldintzetatik eraiki behar dela. Hortaz, ez dago inolako kontraesanik ondoko bi ikuspunturen artean: (a) gaurko eszenategi desberdinetatik abiatu nahi (eta behar!) izatea; eta (b) bihar-etziko egoera berria argi edukitzea. (Kontua ez da *printzipio* mailan gelditzea, hots, zeruan bertan, alegia, hitzontzikeria merkean, baizik eta biharko eta egungo eginkizunak lotzea).

Bitartean, hamaika kontsulta burutu daiteke Euskal Herriko esparru batean zein bestean, hala Iparraldean, nola Nafarroa garaian edo eta Baskongadetan. Kontsultak, egitekotan, lotesleak izan behar dute, noski. Baina gauzatu daitezkeen erreferendum desberdin horiek ez dira izango autodeterminazio-eskubidea, *sentsu strictum*, gauzatzea. Ezer izatekotan, esparru konkretuan egindako kontsulta moduko zerbait izango litzateke, besterik ez.

Autodeterminazioa ez da hiru esparrutan erabakitze ahalmena praktikan jartzea. Horiek, onenean, esparru desberdinetako kontsultak izan litezke. Soilik hiru esparru desberdin horietan lan asko egin ondoren, Euskal Herri osorako dagokigun eta erabat demokratikoa den autodeterminazio-eskubidea gauzatu ahalko da. Hortaz, “ $1 + 1 + 1 = 1$ ” da gaur egungo baldintza. Gero “ $1 = 1$ ” tautologian murgilduko ginatke. Ez dago beste biderik, ez dago beste aukerarik, ez dago hori baino demokratagorik den ezer. Lot gakizkion lanari.

8. Ildo konkretu baten zenbait zehaztasun

Gauza interesgarri batzuk azaldu dira gure herrian azken urte hauetan: intsumisio zibila martxan dago, indarkeriarik gabeko ekintzen bidez gauzatzen den intsumisioa, biolentziarik gabeko estrategian kokatzen dena, militarismo mota guztiak alboratzen dituena hain zuzen ere.

Euskal Herri osorako demokrazia lortzearren, bide demokratiko soilak -tartean intsumisio zibila hainbat arlotan- proposatzen duten indarrak beren eginkizunak zehazten eta argitzen ari dira. Ez da txantxetako egoera berria hau.

Gure aldetik, eta tesi moduan, honelako ideia batzuk proposatuko genituzke epe laburrerako:

- (i) Autodeterminaziorantz abiatzea: *barne*-autodeterminaziorantz egungo markoetatik, eta *kanpo*-autodeterminaziorantz nazioarteko mailan, hainbat ekitaldi demokratiko jorratuz.
- (ii) Udalbiltza estrategia mailako erakundea da. Bera da Euskal Herriko hiru esparru desberdinetan gertatuko dena batera dezakeen erakundea. Berari dagokion rola oso garrantzitsua izango da hurrengo urtetan.
- (iii) Sindikalgintzan LABek eta ELAk 1995ean hasitako ildotik berriz abiatzea, langileriaren, hots, soldatapekoen garrantzia apartekoa da eta.
- (iv) Ekonomia mailan, subiranotasun monetarioa eta ekonomikoa lortzearren, aspaldiko diskurtso zaharkituak alboratuz, *finantza kapitalismoak* gaur egungo ekonomian daukan garrantzia onartzea, hortaz jabetzea, eta kapital industrialaren eta lan-indarraren artean behar diren aldaketak, itunak, akordioak eta politika fiskal berria proposatzen hastea, hots, estrategia berriak martxan jartzea.

9. Zenbait proposamen ez hain konkretu

Batzuen iritziz, sozialismoak praktikan omen du okerkuntza, ez teorian. Horrelakoxea bide da mezua. Besteen aburuz, berriz, neoliberalismoan ondo kokatu behar gara.

Kontua ez da teoria on bat -marxismo leninismoarena- gaizki aplikatu dela, teoria oso kaskarra indarrean erabat gaizki jarri zela baizik. Beste aldetik, neoliberalismoari aurre egiteko, irakurriagoek Tobin-en zerga aipatzen dute. Dirudenez, hemengo progresiak oraintsu jakin du Tobin badagoela, Tobin-ek bere zerga-kontua 1970eko hamarkadan plazaratu bazuen ere. (Dena den, adabakia besterik ez da Tobin-en 'irtenbide' hori.)

Gure aldetik, aspalditik goratu dugu 1995ean ELAK eta LABek lorturiko akordioa, menia denboran ezagutu genuen egoera bereziaren hasiera eta abiapuntu nagusia izan zena, eta berriz gaur egun ere izan beharko litzatekeena. Sindikatuek, eta euskal langileria oro har, defentsiban daude, nonahi langileak dauden antzera. Ulertzekoa da. Aspaldiko topikoak eta mitoak gero eta nabarmenagoak ageri dira sozialismo 'errealaren' porrotarekin. Bien bitartean, kapitalismoak bere etengabeko martxan sakoneko aldaketak ezagutu ditu. Ondorioak nabariak eta ezagunak dira: krisi ekonomikoak, espekulazioa, triskantza ekologikoa, eta abar luzea. Horri guztiari lantxo honetan erantzun konkretua ematea gehiegi litzateke.

Aipa dezagun, dena den, oso garrantzitsua den puntu bat. Enpresarien ahaleginak eta bankarien mirariak aipatzen dira etengabe komunikabideetan, informazio-aurkezleek zabor intelektuala agertzen duten bitartean. Non daude langileak, non gaude soldatapekoak?

Badirudi langileak defentsiban daudela, soldatapekook ahalkeak gabela. Alta, argi eduki behar genuke Adam Smith-engandik Keynes-engana datorkigun mezua, hots, lan-indarra -zentzu zabalean- ondasun guztien iturria dela.

Langileriak erreminta kontzeptual berriak behar ditu kapitalismoak ezagutu dituen aldaketak ulertzeko eta erantzun egokia eman ahal izateko.

Kontua ez da soilik ekonomia krisian dagoela. Hori argi dago, *malgré* diskurtso ofizial guztiak. Okerragoa dena ondokoa da, hots, zientzia ekonomikoa bera ere krisian dagoela. Hori onartzen ez dugun artean, zorabioan biziko gara, hitzen zorabioan. Zorabio horretatik irten nahirik, lan honetan aipaturiko autorearengan –Michael Hudson-engan- badauka irakurleak zer pentsatu eta zer hausnartu.

10. Hitz azpimarragarri batzuk

Sokal-ek eta Bricmont-ek liburu zoragarri batean (1999) argi frogatu dutena aipatu behar da, alegia, egun oso zabaldurik dauden erlatibismo epistemologikoak eta kulturalak, iluntasuna eta nahastea gizarte zientzietan sarraraziz, aparteko ahulezia ekarri diotela ezkerari. Ez da iluntasun gutxiagokoa ohiko marxismo leninismoaren eskematxoetan murgiltzen dutenen diskurtso patetikoa.

Sokal-ekin eta Bricmont-ekin batera esan behar da ezen *“ezein ezker mugimendu ezin dela eraginkorra izan gertakari zientifikoei, balore etikoei eta interes ekonomikoei dagozkien arazoak serioski aintzakotzat hartzen ez badira”*.

Gaur egun aro berri batean bizi gara hala politikan nola ekonomian. Hamaika gauza dago egiteke gure herrian. Saia gaitezen egiteko horiek burutzen. Gauza askotxo ikasi dugu. Haien artean zer-nolako proposamenak baztertu, alboratu behar diren. Duda gutxi dago horretan. Utz diezaiozun leku bat eztabaidari, eztabaida zabalari, ezagutzen ez dugunak ez baikaitu beldurtu behar. Utikan nominalismoa! Gora eztabaida!

Gure aurrean, gure begien aitzinean egia potoloak eta borobilak deuseztatu, desagertu dira. Aldaketa gehiago etorriko dira, inolako dudarik gabe. Defenda dezagun, beraz, argi daukaguna: euskal hizkuntza, kultura, irakaskuntza... Egin diezaiogun leku, txikia bada ere, ekonomian dagoen eztabaidari. Erabil ditzagun bide demokratikoak euskal demokrazia berri bat eraikitzearen. Eta mundu korapilatsu eta aro zail honetan, erabil dezagun arrazoia gure proposamenak plazaratzeko eta bultzatzeko, irrazonakeriak putzura besterik ez baikaitzake eraman. Izan ere, gure gizarteak pairatzen diruen gaitzak -langabezia, inflazioa, kanpo-zorra eta moneten arteko ezegonkortasuna, arlo ekonomikoa soilik aipatzearen- ez dira inolako mirari esoterikoren eta irrazonakeriaren bidez desagertuko.

Euskal Herria jadanik sarturik dago Europar Batasunean. Aspaldian Europar Batasunean sartu gintuzten, inolako kontsultarik gabe. Gure etorkizuna Europa horretan gertatuko denari lotu behar diogu, onerako eta txarrerako.

Bibliografia

Gros Espiell, H. (1998) El sentido actual del nacionalismo. Pueblo, nación y estado en el derecho internacional y en el derecho constitucional, in *Nacionalismo vasco. Un proyecto de futuro con 100 años de historia*. Tomo XI. Bilbao: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Sokal, A. eta J. Bricmont (1999) *Imposturas intelectuales*. Barcelona: Paidós.

Tobar-Arbulu, J. (1997) *Marxez haratago. Euskal independentzia eta subiranotasun ekonomikoa*. Tafalla: Txalaparta.
